



**2012KO MARTXOAREN 9KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko martxoaren hamabian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2012ko otsailaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 42 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HAMAR ZENTIMOtakoa (4.688,10 €)takoa eta 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA HOGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMOtakoa (122.984,95 €) onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 10-11-002 zbk.dun esped.: zerbitzuaren orduak gehitzea, astean 6 ordutik 12 ordura, erabiltzailearen osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 90,36€ ematea, urtariletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,50€ ematea, urtariletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuetarako hilean 69,38€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik apirile. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 71,06€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 69,38€ ematea urtariletik apirilera eta alokairurako 187,50€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
- 670 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 33,44€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %60 da.
- 564 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 69,38€ ematea urtarriletik ekainera eta aurretiko zorpetze gastuetarako 130,54€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 09-1-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 69,38€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 09-1-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 81,98€ ematea, urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-017 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 92,50 € ematea urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-019 zbk.dun esped.: Alokairu gastuak ordaintzeko hilean 250,00 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-020 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 47,53 € ematea urtarriletik apirilera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-018 zbk.dun esped.: Alokairu gastuak ordaintzeko hilean 150,00 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %60 da.
- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

#### IV.- BILERAREN AMAIERA.-

LAZKAOKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a small vertical stroke.

